



**EBBren Prentsa Bulegoa**  
**EUZKADIko**  
**PRENTSA IDAZKOLA**



**Balioa izango duen diskurtso bakarra izango da hizlariak ekitaldian bertan eskainiko duena.**  
**El único discurso válido será el pronunciado por el orador en el acto.**

## **ALDERDI EGUNA 2018 - JOKIN CASTIELLA, EGikidea**

Egun on alderdikideok, aberrikideok, euskaldunok. Egun on Euzkadi! Bon dia amics catalans, bo dia amigos galegos.

Hasi baino lehen, aitortu behar Euzko Gaztedi EGI-kide moduan eta alderdikide moduan harrotasuna sentitzen dudala Alderdi honen sugarra zelai hau betetzen ikusita. PREST da aurtengo Alderdi Egunaren leloa. Ba lehendabiziko aldarrikapena: Jakin ezazue Euzko Gaztedi egunero gaudela PREST zuekin batera, gainontzeko alderdikide guztiekin batera gure Aberria haundi egiteko!

Gure helburua hori delako: Zuekin batera HERRIGINTZAn jardutea. Gazte garen aldetik guri dagokigulako herri honen ETORKIZUNA bermatzea, Herria eraikitzen laguntzea eta gure indarra eta kemena Alderdiari eskaintzea.

Ez da lan makala: Euskal gazteok egunero adierazten dizkizuegu gure kezka eta arazoak. Tribuna honetan ere: Lehen enplegua lortzeko zailtasunak, lan baldintzen prekarizazioa, etxebizitza... Erronka globalak ditugu ere aurrean; genero berdintasuna bermatzea, Ongizate Estatua mantentzea, gure zaharren – pentsiodunen – aldarrikapenak gure egitea, gure gizarteko pertsona ahulenei babesa ematea...

Gaur egungo gizarte berriak eszenatoki berri baten protagonista bihurtu du gure belaunaldia: Lehengo arazoak mikro esparrutik makro esparrura iragan dira. Betiko ERRONKEI aurre egiteko ez dute lehengo formulek balio; Garai Digital berri baten aurrean konponbide berriak emateko gai garela frogatu behar dugu.

Emakume eta gizon askeen ABERRI bat eraikitzeke gai garela frogatu behar dugu! Zuen alboan egongo gara Alderdia eraikitzeke, Aberriari bultzada emateko eta Etorkizunari aurre egiteke!

Askok etorkizun hori European bilatu nahi izan dute Europazale izan gabe. Europara begiratu baina iraganeko formulak erabiliz. Eskuin zein ezker muturreko ideologiek bere egiten ari duten Europa ez da gurea; gurea ez da Ongizate Estatua suntsitu nahi dutenena; gurea ez da urritasun demokratikoaren Europa; migrazio krisien Europa, xenofobiaren Europa... Gurea ez da Salvini eta Orban-en Europa. Gurea Agirre edo Irujok amestu zuten Europa hori da, justizia sozialarena, askatasunarena, Demokraziaren Europa. Gure Herriak, Euzkadik, bere autodeterminazioa, burujabetasuna eta independentzia modu baketsu eta demokratikoan aurkituko duen Europa MODERNOA da gurea!



Hala ere Europa horretan BIDEGABEKERIA eta IRUZUR asko ikusten ditugu oraindik. Ezin ahaztu gaurkoan Kataluniako gure anai-arrebak; gaur eta beti Kataluniako herriarekin daude gure bihotzak. Gaur inork baino hobe ezagutzen dute Kataluniako herritarrek Madrilek egindako IRUZUR demokratikoa. Euskaldunok ez dugu iruzur demokratikorik onartuko! Ez hemen eta ez inon!

Etxera begira ere aipatu beharra Nafarroako egoera: Egoera historikoa. EAJren eskutik etorri den egoera; Euskaldunok zokoratzen gintuen erregimen batetik aterarazi gaituen aldaketa. EUSKARA, EUSKAL NORTASUNA, IKURRINA eta ASKATASUNA zigortzeari utzi dion aldaketa. Eta aldaketa horren sustatzaile, bultzatzaile nekaezina eta protagonista izan da alderdia; Horregatik, benetan diot, Nafarroara begira HARRO nagoela Eusko Alderdi Jeltzalearekin!

Oraindik esaten digute 'baskoak' etorri omen direla Nafarroara: 'Que vienen los vascos' esaten ziguten. Ba hau gure erantzuna: Euskaldunok beti egon gara Nafarroan! Lapurdin, Xiberun, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan egon garen moduan! Argi eta garbi esan behar zaie: Madril, Paris, entzun ezazue ondo: Hau Euskal Herria da, ez Frantzia, ez Espainia! Nafar ezagun bati –del Burgo- ere esan beharko zaio: Zuen Konstituzioak 40 urte ditu, gure Alderdiak 123! Nafarroa ere Euzkadi da!

Iruñeko Foruen monumentuan dugu idatzita:

Guk, euskaldunok, ez dugu beste jaunik Jainkoa besterik, atzerritarrari ongi etorria eta harrera ematen diogu, baina ez dugu inoiz bere uztarria jasango. Entzun ezazue ongi, gure seme-alabak!

Zuek erakutsi zeniguten euskaldun izaten eta zuei zor dizuegu zuen eskuetatik jaso dugun altxorra mantentzea eta handi egitea. Gure gurasoen ametsa EGI bihurtzea. Hori da gure eginkizuna eta beteko dugu, EGI-ren hitza ematen dizuet.

Euskaldunon hitza delako mahai gainean duzuen! ESAN ETA EGIN da gure leloa. PREST gaude! Katea ez delako eten. Izan zirelako gara eta garelako izango dira.

Entzun dadila euskaldunon ahotsa Madrilen, Parisen, Europan eta munduan. NAZIO bat garelako. Euskotarrak garelako eta gure nortasuna Euskal NORTASUNA delako. Eta gure borondatea Euskal Estatu independente bat izatea delako. Ez etsi!